

Lan egin familia deskuidatu gabe

Duela gutxi Opus Deiko
prelatuak Kongon dagoen
Monkole ospitalea bisitatu
zuen. Kinshasa inguruan
kokatzen den Zentroa da. Han
langile batek galdetu zion nola
bateratu daitekeen lana
famieliarekin

2011 Urr 6

-Aita, nire izena Matondo da,
baina denek Mama zii deitzen naute.

Opus Deiren laguntzaile naiz,
administrazioan lan egiten dut

eta benetan pozik nago nire lanean,
pozik eta harro.

Opus Deiko zentroetan hartzen
dudan heziketan

familiari buruz asko hitz egiten
digute.

Ospitaleko administrazioan famili
giroa

eta zerbitzu espiritua bizitzen
saiatzen gara.

Eta oso gustukoa dut hori.

Badakit hori Opus Deiren
espirituaren ondorio dela,

eta eskerrak eman nahi dizkiogu.

Gainera, opari bat prestatu dugu
zuretzat.

Lauki bat da, eta bertan emakume
nekazari bat azaltzen da

lanera doala, aitzurra sorbaldan,
saskia buruan eta semea bizkarrean.

Horrela batzen ditu etxeko bizitza
eta bere lanbidea.

-Mila esker.

-Bi gauza eskatu nahi dizkiot gainera,
Aita.

Lehenengoa, galdera bat.

Zer esaten digu, emakume horrek
bezala

gure seme-alabak lanera eramanez
ezin dugunoi,

baina berak bezala etxeko bizitza eta
lanbidea

bateratu nahi genukeenoi?

Bigarrena, eskaera bat da:

konturatuko zinen, noski,
administrazioan lan egiten dugunok
uniformeak jantzita etorri garela
tertulia honetara
nahiz eta lanaldia bukatuta dagoen.

Azkenean, argazki bat egin nahi
genuke zurekin

-Uste dut ahal izango dugula

-Nik esan nahi nizuen

garrantzi handikoa dela zuen famili
bizitza

-gure familia da ere: asko maite dut
nik zuen familia!-

zaindu dezazuela.

Errespeta itzazue ordutegiak.

Monkolen eta Erisin lana gogorra
izango da, noski,

baina ez duzue etxera aurpegi
akituaz iristeko eskubiderik.

Etxean sartu aurretik, begiratu zeuen
burua ispiluan

-asko gustatzen zaizue hori, ezta?- eta
irribarre egin.

Gero, honela agurtuko duzue: “Nola
zaude, maitea?”

Batzuetan, ospitale guztietan
gertatzen da,

mediku lanak aurretik pentsatu
baino

ordu gehiago eramaten ditu.

Adibidez, orain hemen ez dira
transplanteak egiten baina

horri ere bere ordua iritsiko zaio,

eta batzuetan ezin izango duzue
etxera behar den orduan iritsi.

Hori gertatzen denean, finak izan
zaitezte:

deitu zuen senarrei, zuen emazteei

eta esan: “Garrantzizko kasu bat
daukagu,

eta egon behar dut,

beraz, beranduxeago iritsiko naiz;

baina zeuengan pentsatzen ari naiz”.

Eta atzerapen hori familiarengatik
eskaintzen diozue Jaunari.

Monkole ere familia bat izan behar
da,

zuen etxeetako familia bezala.

Elkarri lagun iezaiozue ordutegiak
bizitzen egun osoan zehar.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/lan-egin-
familia-deskuidatu-gabe/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/lan-egin-familia-deskuidatu-gabe/) (2025 Abu 8)